

Zer litzateke bertso Ying bat?

Yang. Maskulinoa-distira-konkretua-kontzientea-pentsamendua.

Ying. Femeninoa-opakoa-sotila-inkontzientea-sentimendua.

"Gure Mendebaldeko kultura, yang munduarekin identifikatzen gara: konkretua, fisikoa eta materialki demostragarria den oro ulertzen dugula uste dugu. Emaizta ukigarriak eta pentsamendu intelektualak du indarra, eta sinesmen eta ohitura horretara makurtuta gaude gizon zein emakumeak". (Laura Gutman, *Puerperios y otras exploraciones del alma femenina*).

Ekain hasieran Bertsozale Elkarteak gogoeta eguna antolatu du generoaren gaiari heltzeko. 20 bertsozale inguruk, gai horretan aditu diren bi profesionalak gidaturik aztertuko dute bertso-laritzan eta Elkartean generoak duen egoera. Hurrengo urratsak Genero Batzorde bat sortu eta lan ildoak finkatzea izango dira. Elkartean zein bertso-laritzan emeki, zarata handirik gabe barneratzen ari den gai honek irekiko du iraultza/aldaketarik handiena izan daitekeenaren atea.

Lasai, ez nator errudun bila. Ez diot horrela behar ez lukeenik, ez bestea hobe litzatekeenik. Ez dut ukatzen beltzak txuri puntua duenik, ez txuriak beltzetik duenik. Mendebaldeko kultura kokatuta egoteak eta atzo arte gizonezkoak bakarrik ageriko sortzaile izanak bertso-gintzan zer eragin izan duen planteatzea bakarrik dut helburu. Bertso-laritzan generoaren gaia aztertzen denean, asko erreparatzen zaie kuotei eta bertso-tarako gaiei; gutxi berriz bertsoari berari, emaitzari. Bertso onaren definizio horretan, kanonean, nola eragin ote du gizonezkoena bakarrik izan den begiradak? Zer beste edertasun, helburu, estilo bila daitezke bertsoan egiterakoan?

Arrazoi borobileko eta bukaera kargatuko bertsoak dira onak. Distira transmititu behar du bertsoak. Nola litzateke karga hiru bertsoan banatu eta bukaerak deskargatzen dituen bakarkako lan bat? Nolakoa litzateke hizkuntza emozional bat, emozioak ere arrazoi bihurtzen ditugun honetan? Zer esterotipo sor daitezke "potologazte-ekzkondu"tik harago? Nola ireki ate bat inkontzientearen, sentimenduaren zurrunbiloari bertsoen ariketa mental-neurtuan?

Emakumeak oholtzara bakarka igo dira, eta arrakasta, indarrean den bertso-gintzan trebatuta lortu dute. Ariketa zaila da, beraz, ikasitakoa desikasi eta barrutik datorrenari forma bilatzea. Agian, beti ukatu ditugun gorputzaldiak kontuan hartzetik hasi beharko da. Ez duzula jendaurrerako gorputzaldirik? Bilatu ondo sentitzen zaren testuinguruak. Ez diozula gai horri kantatu nahi? Ez kantatu, edo gaia eraldatu. Libreko ariketa izan daiteke formula polita, kanpoko eguraldiari buruz kantatu beharrean barrukoei kantatzeko baliatzen bada, noski. Lan hau plazatik kanpo egitea logikoa litzateke, nork bere etxean lehenik, eta talde txikitik ondoren. Kontua beste estetika batzuk lantzea denez, itxusi egin beharko delako hasieran, diferente eta polit egiten ikasi arte, edo agian gustu estetiko aldatu eta egun itxusi dena polit ikusten dugun arte, depilatu gabeko hankak bezala.





Ezpalak

erdiko katera

Olaberriako zirkuitua

Gida eskola Karting-a



Gainera auzoa, Z/G
20212 Olaberria
☎ 943 16 08 62
www.vilarinomotor.com
info@vilarinomotor.com

2008ko maiatzaren 25a

ARGIA